

# PROBLEMAK 1

IZENA:..... MAILA:.....

1.- Tren batek 4 bagoi ditu. Lehenengoan 12 pertsona doaz, bigarrenean lehenengoaren bikoitza, hirugarrenean bigarrenaren erdia, eta laugarrenean 20. Zenbat bidari doaz trenean?



DATUAK

ERAGIKETAK

MARRAZKIA

ERANTZUNA

2.- Nire amaren urtebetetzea da eta alkondara bat erosi nahi diot. Alkondarak 52 euro balio du, baina beherapenak daudenez 14 euro kendu dizkiote prezioari. Nik 50 euro dauzkat ordaintzeko. Zenbat geldituko zait soberan erosi eta gero?

DATUAK

ERAGIKETAK



MARRAZKIA

ERANTZUNA



3.- Ordenatu esaldiak eta burutu.

ORDENATURIK

Bakoitzak 2,20 euroan

Dendari batek 100 panpin erosi ditu

Zenbat irabazi du?

Panpin guztiak saldu ditu 400 euro lortuz.



DATUAK

ERAGIKETAK

MARRAZKIA

ERANTZUNA

4.- Joko bat egingo dugu estrategia lantzeko. Behean dagoen taulan binaka jolastuko duzue, hurrengo orrian dauden fitxak erabiliz. Hurrengo orrian ere jokoaren arauak dituzu.

Goiko fitxa borobilak moztu eta aurreko orriko taulan kokatu irudian azaltzen den moduan.

Fitxak txandaka mugitu behar dituzue , bestearen fitxak blokeatu arte.

Fitxak aurrera eta atzera mugi ditzakezu nahi dituzun laukiak aurreratuz edo atzeratuz, baina ezin duzu beste koloreko fitxa baten gainetik jauzi.

Momentu batean jokalaria bat blokeaturik geldituko da, hori da, ezin izango du fitxarik mugitu. Blokeaturik gelditzen denak galduko du.

Jokoan irabazteko estrategia bilatu behar duzu. Zer da hobea lehenengoa izatea mugitzen ala bigarrena? Estrategia desberdinak daude lehenengoa ala bigarrena baldin bazara?